

Zeinentzat dira Sagastian egingo diren etxebizitza publikoak?

■ Konbenioak hau dio: "Eusko Jaurlaritzak hitz ematen du (Sagastian) egingo diren protekzio-ko etxebizitza erdiak Hernanin bizi direnentzat izango dira".

■ Konbenioak jartzen ez duena da etxeak egin baino zenbat lehenagotik egon behar den Hernanin enpadronatuta 'eskubide' hori izateko.

■ Gobernu Taldeak eta oposizioak desberdin interpretatzen dute konbenioa. Asteotan, Batasunak eta EA-EAJk beren posturak azaldu dituzte.

HERNANIKO Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Sagastian Babes Ofizialeko etxeak egiteko firmatu duten konbenioak hauts dezente harrotu du azkenaldian. Argitu beharreko galdera da, ea zeinentzat izango diren "Hernanin bizi direnei" emango zaizkien etxeak.

Jaurlaritzak eta Udalak sinatu duten konbenioaren hirugarren klausulak dio: "Hektareko gehienez 40 etxe egingo direla, alegia, denera 349 etxe inguru". Zazpigarren klausulak, berriz, honako hau eranstean dio: "Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hitz ematen du, egingo diren protekzio-ko etxe erdiak Hernaniko udalerrian bizi direnei adjudikatuko zaizkiela".

Noiztik enpadronatuta?

Konbenioak berak ez du jartzen noiztik egon behar den enpadronatuta etxetara hernaniar bezela sartzeko. Alegia, promozioa atera baino egun batzuk lehenago enpadronatzea nahikoa ote den.

Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko abokatuek Kronikari adierazi diotenez, noiztik egon behar den enpadronatuta zehazten ez duen kasuetan honako kriterio hau aplikatzen da: "Etxeen promozioa publikatu baino urtebete aurretik enpadronatuta egotea". Alegia, apuntatzeko baseak eta abar atera baino urtebete lehenagotik egon behar da enpadronatuta.



Puig-eko etxeak egiten ari dira eta denak 1999a baino lehen enpadronatutakoentzat izango dira.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILA

"Konbenioan enpadronamendu denbora jartzen ez badu, kriterioa da: etxeen promozioa publikatu baino urtebete aurretik enpadronatuta egotea".

Balorazioak

Sagastiako konbenioari buruz oso balorazio desberdinak egin dira. Gobernu taldearen ustez, aurreko konbenioak ez bezala, oraingoak garantiza-

tzen du etxe erdiak (175) hernanirrentzat izatea. Eta horretaz gainera, lautik bat (87) sozialak izango dira, alkilerrean. Udalarri lurratik dagokion % 10 Jaurlaritzari eman dio, baina, etxeak hernanirrentzat izatearen truke.

EA-EAJren ustez Gobernu Taldeak saldu duena gauza bat da eta firmatu duena bestea. Batetik, aurreko konbenioarekin egingo ziren baino etxe gutxiago egingo direla dio (konbenioak berak ez du jartzen ez zenbat etxe egingo ziren eta ezta hernanirrentzat zenbat izango ziren ere). Bestetik, etxe sozialak legez direla herritarrentzat, beti baitira herriko-

entzat; beraz 87 horiek hernanirrentzat direla esatea ez da erabat egia, EA-EAJren ustez. Azkenik, enpadronatuta egon behar den zehazten ez denez, azken batean eskualde osokoek dute aukera bera. Hala ere, EA-EAJk dio ez dagoela kontra baina, uste du alkateak argitu egin behar duela firmatu dena firmatzeko 3 urte pasa izana.

PSE-EEren dioenez, berriz, aurreko konbenioarekin 600 etxe egingo ziren, ez 349. Hirutik bat (200) izango ziren hernanirrentzat. Gainera, Udalarri dagokion %10-ekin 30-40 etxe erosteko asmoa zegoen, behar gorriko kasuetarako. □

Añarbe, % 81ean

ASTEAZKENEAN hasi eta atzo bitarte, euritza izugarriak egin ditu Hernanin. Haundienak ostegunean bota zituen. Añarben m2-ko 87 litro neurtu zituzten. Hala ere, urtegia aspaldiko bajuena dago aurten. Iaz beteta zegoen garai honetan; 1977tik, batez beste % 88 dago; orain, % 81. □

■ ERRUGBIA

Kadeteak Estatuko Txapelketan

ERRUGBI taldeko kadeteek Estatuko txapelketa jokatzeko dute Zaragozan, gaur eta bihar. Hiru partidu jokatu beharko dituzte. □

Xake-ko finalak

GAUR eta asteartean Hernaniko Xake txapelketako finalak jokatuko dira. Txapela jokatuko dutenak Fernando Esnaola eta Jon Altuna *Oxan* dira. Finala bi partidataratara jokatuko da: gaur 17:00etan Goiz Argi tabernan eta asteartean 21:00etan Bodegan. □

Euskeraren aldeko jende-katea

EUSKERAREN Ofizialtasuna eskatzeko giza-katea egingo da gaur, hiru puntutatik aterata: Endarlatza, Hendaia eta Irun. Hernaniko Aek, Euskal Herrian Euskaraz, Udal Euskaltegia eta beste erakunde batzuk joateko deia egin dute. Hernanikoak Hendaia joango dira. Deialdia: 16:00etan Hernaniko tren apeaderoan edo 17:30etan Hendaia-ko tren estazioan. □

Ur ludoteka, bihar

KIROL Patronatuak antolatuta, ur jolasak izango dira haurrentzat, igandean. Kirodegiko pisizina, 10:30etatik 12:30etara. □

ESKAINTZAK
kotxerako osagarriak
antena
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soporteak

Telebista 390,06 € (64.900pta)



25", 2 x 5 watio, 2 eurokonektore, 7 orriko Teletextoa, Zomm bidezko 4:3tik 16:9rako pasoa, 100 programa, Gris Metalizatua.

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

Urdin

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Paco Loboren poltsa eta monederoak eskusiban.
Perla Australiar selekzioa.

Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

Ford

Antziola-Motor
ZERBITZU OFIZIALA

HILABETE HONETAN 500 - 1200 EURO ARTEKO DTOA
SEGUN ETA ZEIN MODELOETAN.
Zatoz, eta zerorrek ikusi gure eskaintzak.

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TFNOA. 943 55 57 72
Ordutegia: ASTEAN ZEHAR 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATEAN 10-13





Kotxeak traban badaude zabor biltzaileak ezingo dute kontenedorerik hustu.

Zabor kontenedore parean utzitako kotxeei zepoa jarriko zaie, astelehenetik aurrera

■ Astelehenean hasiko dira kontenedore berriak jartzen ■ Kontenedore pareak libre egon ezean, zabor biltzaileak ezingo dute beren lanik egin.

UDALAK zabor kontenedore berriak jarriko ditu astelehenetik aurrera: kurpiladunak kendu eta fiyoak jarri. Beraz, kontenedore aurreak libre egon behar du, bestela zabor biltzeko kamioiak ezin-

go duelako bere lanik egin. Hori dela eta, udalak grua jarriko du. Baina, oraindik grua zerbitzua jartzerako beste hilabeteren bat joango da eta astelehenetik aurrera Udaltzaingoak zepoa jarriko die

kotenedore parean utzitako kotxeei.

Jesus Rebollo Zerbitzuetako zinegotziak herritarren kolaborazioa eskatu du dena behar bezala joan eta zeporik jarri beharrik izateko. □



Toti Martinezek gustora eduki zituen Elizatzoko ikasleak.

HITZ BITAN

✓ ELIZATXO IKASTOLA

Literatura historikoari buruz hitz egin zuen Toti Martinez de Lezeak. Atzo Toti Martinez de Lezea idazlea izan zen Elizatzoko ikastolan. Historia idazteko ikuspuntu ezberdinak erakutsi zituen, hitzaldi dibertigarrian. 16 urteko 30 bat gazteak parez eduki zituen entzuten.

✓ ELKARRI -PAKE KONFERENTZIA

Manifestazioa Bilbon. Elkarrik Manifestazioa egingo du maiatzaren 18an Bilbon, Pake Konferentziari azken bultzada emateko. Autobuserako txartelak hartzeko: 943-459375 telefonon. Guztiaren berri, gaur Plaza Berrian, 12:00etatik 14:00etara. □

ESKERTZA

Dionisio Usarraga Zapirain

Maiatzaren 5ean hil zen, 86 urte zituela

Senitartekook eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztiok.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2002ko maiatzaren 11ean.



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK-

FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	BOLEIBOLA	Taldeak	Non	Noiz
Gorengoak	Hernani-Mutriku	Zubipe	Bihar, 17:00	SELEKZIOEN TXAPELKETA -Jubenil, Kadete eta Infantilak			
Emakume	Hernani-San Ignacio	Zubipe	Bihar, 11:30	Gipuzkoa-Bizkaia-Araba (10:30-12:00-16:00-18:00)			
1. Errejon	Mariño-Hernani	Gal	Bihar, 17:30	PELOTA			
Gazt. Ohor.	Pasajes-Hernani	Molinao	Bihar, 11:30	Hernaniko pala txapelketa			
Kadet. Oho	Hernani-AloñaMendi	Zubipe	Gaur, 16:00	Finala	Iñigo-Oskar / Lujanbio-Etxegia	Kiroldegia	Bihar, 10:30
Kadet. 2.a	Amaika bat-Hernani	Errotazar	Bihar, 11:00	3-4 postua	Ubarretx-Galarza / Imaz-Valero	Kiroldegia	Bihar, 11:30
Haur. Ohore	Hernani-Eibar	Zubipe	Gaur, 10:30	Kronika Txapelketa			
ERRUGBIA				Arano-Gorka / Garmendia-Zabala			
Sen. Lagun.	Hernani-Zarautz	Landare	Gaur, 17:00		Tilosea	Gaur, 16:00	
Jub. Gip. Tza	Hernani-Bera Bera	Landare	Gaur, 16:00		Aritz-Mikel / Alvarez-Arruti	Tilosea	Gaur, 17:00
Kadeteak	Estatuko Txapelketa (Zaragozan, gaur eta bihar)			Trinketea- Euskal Herriko Txapelketa			
Inf. Lagun	Hernani-S.Hendayais	Landare	Gaur, 11:00	Sen. Pal. Go.	Kuku / Martinez-Manzidor		
Ale. Lagun	Hernani-S.Hendayais	Landare	Gaur, 10:30	Jub. Esk1 na	Zaramaga / Unai Elizalde		
ESKUBALDIA				Jub. Esk1 na	Mikel Zurutuza / Behar Zana		
Gipz. Kopa	Urnieta-Hernani	Urnieta	Gaur, 17:45	Kad. Esk1 na	Xabi-Erdozio / Zaramaga		
				Kad. Esk1 na	Ramontxo / Unai-Ezeiza		

BOLEIBOLA

Selekzio Txapelketa

BOLEIBOLEKO Selekzio Txapelketa gaur jokatuko da Hernanin, jubenil, kadete eta infantiletan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ekipoek jokatuko dute. Partiduak goiz eta arratsalde dira: goizean 10:30etan hasita eta arratsaldean 16:00etan. □

OKINDEGIA
ANTZIOLA
Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

Orain beste denda bat zabaldu dugu:
Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refrescoak, ...
Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
Erakusketak: ZOLA NOVIKOVA margolariaren kuadroak.
MONTEBIDEO, 3 behea

EASO - G.B.L.H.I. POLITEKNIKOA
Felipe IV etorbidea 1-b DONOSTIA. Tel 943- 455422 Faxa 943 470022

EUROLAN 4x4
KONTZESIONARIO OFIZIALA GIPUZKOA
Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

OIALUME BILTOKIA.
Ilgande eta jai egun guztietan dantzaldia
Ilgande honetan **TRAKETS**
19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Eskaintza Akademikoa

EGUNEKO IKASKETAK

- Batxilergoa** (A eta D ereductan).
Natur eta Osasun-Zientzien Batxilergo Teknologikoa
- Heziketarako Zikloak** (A eta D ereductan).
Erdi Mailakoak
Arotzerien eta Altzarien neurrira egindako fabrikazioa eta instalazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.
- Goi Mailakoak**
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko Produkzioa.
Eraikuntza proiektuen garapen eta aplikazioa.
Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena
Ingurugiro kimika
- GAUEKO IKASKETAK**
- Heziketarako Zikloak**
Erdi Mailakoak
Arotzerien eta Altzarien neurrira egindako fabrikazioa eta instalazioa
Mekanizazioa
- Goi Mailakoak**
Proiektu mekanikoaren garapena.

Izena ematea zabalik.